

Ihesi, kalera ala kaletik?

Baserriko bizimodua gogorra izan daitekeen arren, hainbatek kalea utzi eta baserriaren aldeko apostua egitea erabaki ohi dute.

Sekuentzia honetan baserritik bizitzea erabaki duten zenbait gazteren kasuak ezagutuko dituzu: baserriko bizimodua izango duzu hizpide.



1- Kaletik baserrirako aldaketa

Vanessak eta Jonek kaletik baserrirako bizimodu-aldaketa egitea erabaki zuten. Bideoa entzun ondoren, esaldiak osatu dagokion amaiera aukeratuta.

KONTUAN HARTU:

Kale-ume: kalekume. Bi modutara idatz daiteke.

Esanahia: Kaletarra dela esan nahi du, hau da, kalekoa dela. *Baserritar* hitzaren aurkako gisa erabiltzen dugu.

Ikus adibideak:

- *Kalekume horrek asko sufrituko du, mendira joaten bada.*
- *Ander izatez kale-umea da, baina oso ondo egokitu da baserriko lanetara.*
- *Kalekumeak ezjakinak izaten gara ardiei buruzko gaietan.*

1. *Vanessak baserria erosteko aukera izan zuen, eta garbi zeukan...*

- hiritik alde egin nahi zuela.
- oiloak hazi nahi zituela.
- bere bizitza baserriaren inguruan egin nahi zuela.

2. Jon Arregik erabaki zuen artzain-lanbidea probatzea...

- artzain batek lanbide horretan hasteko esan ziolako.
 - sukaldean lan egiteaz oso nazkatuta zegoelako.
 - animaliak eta bereziki ardiak asko gustatzen zitzaizkiolako.
-

3. Jonentzat konpentsagarria da...

- aisialdirako hainbeste denbora edukitzea.
- beraien ardietatik bildutako esnearekin gazta egin eta hori saltzea.
- bere ardiak zaindu ahal izatea.

2- Ander Barandiaran

Irakurri beheko elkarrizketa eta komentatu talde txikian, galderen laguntzaz.

«Baserritarraren lana ikasten inoiz amaitzen ez den ofizioa da»

Ander Barandiaranek (Amasa, 1982) 2006an utzi zuen bere sorterrria Idiazabalen bere ametsari ekiteko. Ez da baserrian jaioa, baina baserri giroan hazitako mutila da. Beti izan du baserritik bizitzeko harra (nahia) barrenean. Orain errealitate bihurtu du, lan, dedikazio eta sakrifizio askoren truke izan bada ere.



Nolatan Amasatik Idiazabalera?

Garbi izan dut beti baserritik bizitzea nahi nuela. Salgai zeuden baserriak begira nobilela izan nuen Gaztainaditxuloren berri. Bertara etorri, ikusi eta erostea erabaki nuen. Pixkanaka hasi nintzen.

Noiz hasi zinen gazta egiten?

Aurretik etxean gazta egiten bagenuen ere, 2009an egin nintzen Idiazabal Jatorri Izendapeneko eta Artzai Gaztako kide. Orduan hasi nintzen modu profesionalean, nolabait esatearren.

Urte askoan lantegiko lana eta baserrikoa uztartu behar izan dituzu.

Hamalau bat urtez aritu naiz lantegi batean lanean, eta orain urte eta erdi inguru utzi nuen erabat. Lantegiak asko lagundu dit hasierako urteetan, egin beharreko inbertsioak handiak baitira.

Hutsetik hasi behar izan duzu zure ametsa egia bihurtzeko.

Honetan sartu nintzenean garbi nuen urte txarrak pasatu beharko nituela hasieran, baina helburuan sinesten baduzu edozer egiteko gauza zara. Pixkanaka eman ditut pausoak, 10 ardirekin hasi nintzen. Egin nahi duzun hori ondo ezagutu behar duzu aurrena, eta ikasi. Gurea, ikasten inoiz amaitzen ez den ofizioa da.

Ardietatik bizi zara gaur egun?

Bai, gazta salmentatik batez ere, arkumeak ere hazten ditugu. Baratzea etxeko kontsumorako daukagu, nahiz eta dagoenean hortik ere saltzen dugun zerbait.

Ordiziako azokan izan zara abuztuan. Zer nolako esperientzia izan da?

Ona. Hasierako asteetan jende mordoxka bat ibili da, atzerritarrak ere bai asko. Azken asteetan lasaiagoa izan da giroa. Hemendik aurrera ere jarraitu nahiko nuke azokara joaten, baina baserriko lanak eta azokakoa nola uztartu pentsatzen nabil orain.

Nola ikusten duzu artzaintzaren etorkizuna?

Gero eta gutxiago gara. Aurrera jarraitzeko bide bakarra, baserritarrok egiten dugun produktua eta lana balioan jartzea da.

www.goiberri.eus web ataritik hartua.

- 1. Ezagutzen duzu gaur egun baserritik bizi den gazterik? Nola bizi du esperientzia hori?**
- 2. Eta baserrian bizitzetik kalera joatea erabaki duen kasurik? Zergatik eman zuen pausu hori?**

3- Gu baserritik bizi gara



Baserritik bizi diren zenbait gazteri buruz hitz egiten duen erreportaje baten sarrera entzungo duzu. Eta entzun aurretik, adieraziko denaz hipotesiak egin eta horiek egiaztatzeko aukera izango duzu.

Adierazi beheko baieztapen hauetatik, zure ustez, zein informazio emango den eta zein ez. Ondoren, entzun eta emandako erantzunak benetan esan denarekin alderatuko dituzu. Hauetako hiru egiazkoak dira.

	Esango dute	Ez da esango
Duela urte batzuk gazteek baserritik ihes egiten zuten.		
Egungo gazte gehienek pentsatzen dute baserritik ezin dela bizi.		
Gero eta gazte gehiagok pentsatzen dute baserrian badela nahiko lan.		
Erreportaje honetako zenbait gaztek ikasketak egin ondoren, baserrira itzultzea erabaki dute.		
Gazte hauek badakite oso zail dutela baserritik bizitzea.		
Gazteen testigantzetan baserrian bizitzeko dituzten zailtasunak azalduko dira.		

4- Nork esan du?

Orain entzun erreportaje osoa, eta entzun bitartean, adierazi zein gazteri dagokion esandakoa. Entzun aurretik, irakurri ondo beheko esaldiak.

	Ioritz	Alazne	Aiora
Baserrira joan aurretik, "Mihi luze" programan lan egin zuen.			
Bere ustez, lanbide honetan garrantzitsuena jendearengana iristea da.			
Lehen kalean bizi zen, baina betidanik txabola bat izan dute.			
Oso garrantzitsua iruditzen zaio zer jaten dugun eta nondik datorren jakitea.			
Baserrira joan aurretik irakasle-ikasketak egin zituen.			
Produktu bat saltzeko garrantzitsuena produktu horiekin konfiantza izatea da.			
Betidanik izan du baratzetik bizitzeko gogoia.			

5- Nominalizazioak: testigantzak osatu

Irakurri entzun dituzun gazteen testigantzak. Testuak moldatuak daude. Osa itzazu, kasu bakoitzean dagokion nominalizazio-kasua aukeratuta. Ariketa egin aurretik, irakurri taulako azalpen eta adibideak. **Aholkua:** ariketa egin aurretik, beltzez azpimarratu esaldi horretako aditz nagusia, lehen bi adibideetan bezala.

NOMINALIZAZIOAK: ZENBAIT KASU

- **T(Z)EKO.** Ondorengo aditzekin: agindu, erregutu, esan, eskatu..
- Izen lagun gisa ere asko erabiltzen da: kantatzeko gogoa, beharra, aukera, asmoa.... Ikus adibideak:
Bizimodua aldatzeko premia sentitzen nuen.
Esan dizuet jostailuak berehala jasotzeko.

- **T(Z)EAK:** Zerk galderari erantzuten dio. Aditza subjektu eragile bihurtzen da. Honelako aditzekin erabiltzen da: *haserretu, kezkatu, sutan jarri, harritu, on (kalte) egin, mindu, min eman,*
Ikus adibideak: *Horrek asko haserretzen nau.*
Hori esateak asko haserretzen nau.
Bizimodua aldatzeak on egin zidan.

- **T(Z)EA.** Ondorengo aditzekin erabiltzen da gehienbat:
- *Ahaztu, tokatu* eta antzeko nor-nori aditzak.
- *Zaila izan, ona izan, ondo egon* eta antzeko aditz-lokuzioak.
- Aditz hauekin ere bai: *debekatu, erabaki, espero, galarazi, lortu, merezi, nahi, onartu, opa (desear), pentsatu, proposatu.*
NAHI aditzarekin, nominalizaziora jotzen da subjektu desberdinak direnean: *Lan hori zuk egitea nahi dut.* (Nik nahi, zuk egin)
Ikus adibideak: Aspaldi erabaki nuen kaleko bizimodua uztea. Nire gurasoek espero zuten ni baserrian geratzea.

ALAZNE INTXAUSPE: Nik baserrira joan aurretik beste zenbait lan-esperientzia izan nituen. Hortaz, nik **ez nuen** hasieratik **erabaki** baserrira **joatea / joateko / joateak**. Duela urte batzuk ETBko “mihi luze” programan lan egin nuen produkzio-lanetan, eta oso gustura ibili nintzen. Baina, buruari buelta asko eman ondoren, bizimodu berri bat **hastea / hasteak / hasteko asmoa** **pentsatu nuen**. Lagunek esaten zidaten nekazaritzatik bizitzerik badagoela, eta egia esan, nire bizimodua **aldatzeko premia / aldatzearen gogo / aldatzeak** handia sentitzen nuen. Eta hala, ETBko lana utzi, eta bizimodu hori aldatzeko lehen urratsak **ematea / emateaz / emateko** pentsatu nuen.

IORITZ IGARATAUNDI: Nik lehen lora zaintzan egiten nuen lan; betidanik izan dut **baratzetik bizitzeko gogoa / baratzetan bizitzearen premia / baratzetik bizitzearen premia**. Nire kasuan, baserrian jaioa naizenez, pixka bat errazago izan nuen baserriko bizimodura **itzuli ahal izateko / itzultzeko / itzultzea**. Izan ere, nire gurasoek lur-sailak dituzte, eta gainera, baratzean **lan egitea / lan egitean / lan egiteak** abantaila asko ematen dizkit, batik bat betidanik nahi izan dudana bizimodua egiten dudalako, eta natura gertutik **bizi ahal izatea / bizitzeak / bizitzean** poz ikaragarria ematen didalako. Baserritik bizi ahal izateko nire ustez, garrantzitsuena da jendearen iritziak **kontuan hartu / kontuan hartu ahal izateko / kontuan hartzea** eta saltzen dituzun produktuak kalitatezkoak **izatea / izan / izateko**. Gainera, jendeak gero eta gehiago estimatzen ditu produktu ekologikoak eta poz handia ematen du jendeak zuregan konfiantza **izatea / izatean / izateak**.

6- Kalera noa ihesi



Aurreko ariketetan baserriari buruzko uste eta bizipen batzuk agertu dira. Oskorri taldearen kantu ospetsu honetan, ordea, baserriaren beste ikuspegi bat azalduko da. Kantuaren letra Xabier Amuriza bertsolariarena da. Bertso hauetan egoera eta erabaki baten berri ematen da, lehen pertsonan kontatuta.

- *Lehendabizi, entzun kanta osorik testua irakurri gabe. Ezaguna egin al zaizu kanta?*
- *Orain bertsoaren testu idatzia ordenatu behar duzu. Orden logikoa du: egoera azaltzen du lehenik, ondoren erabakia eta azkenik ondorioa.*
- *Entzun berriro zuen erantzuna egiaztatzeko eta, gustukoa baduzue, kantatu elkarrekin.*

	ORDENA		ORDENA
Jaikitzen naiz egunero oilarrak jo ta gero, lanetik eta lanera beti nola ninteke hain ero! Kalera aldegin edo sartuko naiz gerrillero.		Ni bizi naiz baserrian animalien erdian, bertsotan kontatuko dizuet mundu guztiak dakian nola nagoen mendian bizidunen hilobian.	
Kalera noa ihesi neure gurdi eta guzi, ez naiz menturaz han ere ongi ibiliko lehendabizi, baina ez ninteke bizi baserrian bezain gaizki.		Lanez banago ase ordaina ez da luzea, mendi goietan egonagatik hauxe da nire leizea emaidazu guraizea urra dezadan haizea.	
Agur baserriko mendi, hil arteko urkamendi, hiltzeko bada ere zugana berriro itzul banendi, mundua ez dabil ongi edo nauzu ero haundi.			

Kanta ulertzen laguntzeko azalpentxoak:

Mundu guztiak dakian = mundu guztiak jakiteko

Bizidunen hilobia -> *hilobian hildakoak egoten dira, baina hemen bizirik daudenak daude.*

Oilarrak jo = oilarrak kantatu

Lanetik eta lanera = beti lanean

Lanez asea = lanez itota

Mendi goietan ... leizea -> *Nahiz eta mendian goian egon, zuloa da hau. (lehenago hilobia aipatu du).*

Urta dezadan = hausteko, ebakitzeko

Neure gurdi eta guzi = gurdia ere eramango dut

Menturaz = agian

Hil arteko urkamendi = heriotzara emateko tokia

Itzul banendi = itzultzen banaiz

Nauzu ero handi = Zeharo erotuta nago



7- Baserrian bizi ala kalean?

Gazte hauen esperientziak entzun ondoren, eztabaidan ari zarete. Batzuek baserritik bizitzeari abantaila handiak ikusten dizkiozue, eta beste batzuk nahiago duzue hiriko bizimodua. Ahoz, eman bakoitzak zeuen iritzia beheko argudioak edo beste batzuk erabilia.

Erabili honelako egiturak:

Merezi du... Garrantzitsua da... - T(z)EA; Aukera ematen du... -T(z)EKO; Premia handia..... - T(z)EKO

Merezi du baserritik bizitzea, bertan zeuk nahi duzuna egiteko askatasun handiagoa izan dezakezulako.

Nire ustez, garrantzitsua da behar duzunean lanez aldatzea, eta hori baserrian oso zail ikusten dut.

Kalean bizitzeak aukera ematen dit nik nahi ditudan gauzak egiteko: pelikula bat ikusi, kaletik paseatu eta abar.

HIRIAN BIZITZEA:

- * Zerbitzu eta aukera gehiago daude ondo pasatzeko.
- * Lana aurkitzeko aukera ugariak daude.
- * Bertan bizitzeak estres handia eragin dezake.
- * Desplazamenduetan denbora asko gal dezakezu.
- * Jende edo toki desberdinak ezagutzeko aukera gehiago dituzu.



BASERRIAN ETA BASERRITIK BIZITZEA:

- * Naturarekin harreman zuzena duzu.
- * Eguneroko produktuak zuk zeuk ekoizten dituzu.
- * Lan-ordu asko eskatzen du eta oso lotua da.
- * Kontsumitzen dituzun produktuak osasuntsuagoak dira.
- * Egiten duzun horretan autonomoagoa zara.

ERANTZUNAK

1- Kaletik baserrirako aldaketa

Vanessak baserria erosteko aukera izan zuen, eta garbi zeukan...

- bere bizitza baserriaren inguruan egin nahi zuela.

Jon Arregik erabaki zuen artzain-lanbidea probatzea...

- animaliak eta bereziki ardiak asko gustatzen zitzaizkiolako.

Jonentzat konpentsagarria da...

- beraien ardietatik bildutako esnearekin gazta egin eta hori saltzea.

3- Gu baserri bizi gara

	Esango dute	Ez da esango
Duela urte batzuk gazteek baserriatik ihes egiten zuten.	X	
Egungo gazte gehienek pentsatzen dute baserri bizi ez dela bizi.		X
Gero eta gazte gehiagok pentsatzen dute baserrian badela nahiko lan.	X	
Erreportaje honetako zenbait gaztek ikasketak egin ondoren, baserrira itzultzea erabaki dute.	X	
Gazte hauek badakite oso zail dutela baserri bizi izatea.		X
Gazteen testigantzetan baserrian bizitzeko dituzten zailtasunak azalduko dira.		X

4- Nork esan du?

	Ioritz	Alazne	Aiora
Baserrira joan aurretik, “Mihi luze” programan lan egin zuen.		X	
Bere ustez, lanbide honetan garrantzitsuena jendearengana iristea da.	X		
Lehen kalean bizi zen, baina betidanik txabola bat izan dute.			X
Oso garrantzitsua iruditzen zaio zer jaten dugun eta nondik datorren jakitea.		X	
Baserrira joan aurretik irakasle-ikasketak egin zituen.			X
Produktu bat saltzeko garrantzitsuena produktu horiekin konfiantza izatea da.			X
Betidanik izan du baratzetik bizitzeko gogoia.	X		

5- Nominalizazioak: testigantzak osatu

ALAZNE INTXAUSPE. Nik baserrira joan aurretik beste zenbait lan-esperientzia izan nituen. Hortaz, nik **ez nuen** hasieratik **erabaki** (**baserrira joatea**) Duela urte batzuk ETBko “mihi luze” programan lan egin nuen produkzio-lanetan, eta oso gustura ibili nintzen. Baina, buruari buelta asko eman ondoren, bizimodu berri bat (**hastea**) **pentsatu nuen**.

Lagunek esaten zidaten nekazaritzatik bizitzerik badagoela, eta egia esan, nire bizimodua (**aldatzeko premia**) handia sentitzen nuen. Eta hala, ETBko lana utzi, eta bizimodu hori aldatzeko lehen urratsak (**ematea**) **pentsatu nuen**.

IORITZ IGARATAUNDI. Nik lehen lora zaintzan egiten nuen lan; betidanik izan dut (**baratzetik bizitzeko gogoia**). Nire kasuan, baserrian jaioa naizenez, pixka bat errazago izan nuen baserriko bizimodura (**itzultzea**) Izan ere, nire gurasoek lur-sailak dituzte, eta gainera, baratzean (**lan egiteak**) abantaila asko ematen dizkit, batik bat betidanik nahi izan dudana bizimodua egiten dudalako, eta natura gertutik (**bizitzeak**) poz ikaragarria ematen didalako. Baserritik bizi ahal izateko nire ustez, garrantzitsuena da jendearen iritziak (**kontuan hartzea**) eta saltzen dituzun produktuak kalitatezkoak (**izatea**) Gainera, jendeak gero eta gehiago estimatzen ditu produktu ekologikoak eta poz handia ematen du jendeak zuregan konfiantza (**izateak**).

6- Kalera noa ihesi

	ORDENA		ORDENA
Jaikitzen naiz egunero...	2	Ni bizi naiz baserrian...	1
Kalera noa ihesi...	4	Lanez banago asea...	3
Agur baserriko mendi...	5		